

Hitzetik jostera



AITZIBER JIMENEZ DE ABERASTURI
KAZETARIA

silpean heldu den mehatxu bat, bidetik gurutzatu duen oro komeni izan zaion moduan moldatu duena. Guztion ahoan sartu dena eta euskal jendarteak men egin diona berekin dakarrenari erreparatu gabe. *Running, spinning* eta *footing* itxuran heldu zen lehenekoz, eta guk normalizatzen jo genuen. Joerak influencer konplexuaren forman jarraitu zuen follower, crush eta *outfit*-ei buruz hitz egiten hasi ginenean. Ehunka forma hartu ditu geroztik, baina, konturatu garenerako, beste behin ere, eskuetatik ihes egin digu. Gaur, *Bilbao Exhibition Center*-era goaz eta, besteak beste, *Humanity at Music* ekitaldia antolatuta zuten "sustraietan errotuta kultura indartzeko". Argi, euskara izan da lehen kaltetua, behin berea zen tokia hartzen hasi baitzaio ingelesa, eta orain badirudi kontuz ibili beharko garela laster Basque-z hitz egiten hasiko ez ote garen.

Aldiz, haratago doa arazoa, eta joera horrek badauka are arriskuatsuagoa den alderdi bat. Begi bistakoa da gure komunikazio-tresna nagusia menderatzen hasi dela, baina apunte hori are kezkarriagoa izan liteke, lengoia pertsonon mundu ikuskera eraikitzeke erreminta nagusia dela gaineratuko bagenu. Hizkuntzatik hizkerara doan gaia da hau, hitz sinpleetatik balioetara jauzi egiten duena.

Azken hitz bombardaketa eredu, betidanik 'ebaluazio' deitu izan diogunari *feedback* esaten zaio orain, "ponpoxoago" delakoan. *Pitching* eta *speech* hitzak gero eta ohikoagoak ditugu, guk berez-



"Afalorduko hitzortua"

ELIA BEDONI

korik izango ez bagenu bezala. *Timing* kontzeptua azkar zabaldu da, presaz, gero eta azkarragoak izan behar garela ahaztu ez dezagun. *Design thinking*-a mehatxari aurkeztu zaigu ere bai, eta arazoaren aurrean jarraibidea pausoz pauso argitzen digu, produktiboagoak izan gaitetzen eta "ahal den azkarren irtenbide berritzaileak" sor ditzagun.

Kontzeptu eta balioz beteta heldu da azken joera, aspalditik hor egon direnak baina gero eta egitura indartuagoei forma ematen dietenak. Hitz ponpoxoak jaso ditugu, baina ez debalde. Izan ere, guk ez dugu soilik hitz eta esaldiekin

hitz egiten, areago, hitz eta esaldiekin pentsatzen dugu, eta lengoaiaren bitartez eraikitzen ditugu eskema sozialak gure prozesu kognitiboetan. Alegia, hizkera eta kontzeptuek inguruko errealitatea eraikitzen dutela interpretazio, arau eta balioen eskutik. Pertzepzio eta motibazio konkrituak nagusitzen dituzte, eta, anglizismoen azken bolada kasu, lehiakortasuna, presa eta epe laburrerako etekinak etxekotu dituzte. Aldiz, prozesu hori ezaguna zaigu. Orain, ekintzailatza azkarraren ideia zabaltzen ari da termino horien eskutik, etorkizun hurbila helburu, baina aspalditik garatzen ari diren egitura sozio-historikoen beste forma bat besterik ez dira, logika berdinei eutsita baina gero eta indartsuago, gero eta harrapariago. Gero eta uniformeago, gero eta zapaltzaileago. Eta, besteak beste, hizkuntza izan da horren albo kalteak jasan dituen lehena. Ez halabeharrez, hizkera baita hein handi batean logika horien sortzaile.

Orain, nola heldu garen honaino galdegin diezaiokegu gure buruari. Nola heldu garen ingelesaren erabilera goiraipatzera, zer baztertu dugun, eta zer errealitate ari garen eraikitzen ahoz aho normalizatzen ditugun kontzeptuekin. Izan ere, askok erakargarritzat dituzte ingeles hitzak, *cool*-a omen da haien ahoan, *trendy*-a akaso; haatik, agonia eta konplexu hutsa ez ote den galdegin diezaiekegu ere bai. Ez ote ari garen kapitalismo eta kolonialismoaren forma berri horien aurrean itsu-itsuan makurtzen. ●